



KETAMINA


KETAMINA ERABILTZAILENTZAKO KOMIKI INFORMATIBOA




Ketamina ondorio haluzinogenoak dituen anestesiko disoziatzaile bat da. Ez dago beste bat baino eraginkorragoa den "keta"-rik, osagai aktibo berdina topatzen baita beti (2-(0-clorofenil)-2-metilaminociclohexanona). Kalean substantziaren purutasuna honek eduki ditzaken eranskin eta eszipienteen arabera alda daiteke.



"Keta" bi modu desberdinetan aurki dezakegu; likido garden batean diluiturik edota hauts zuri itxurarekin, sukaldatua izan bada. Badago edaten, esnifatzen edo erretzen duena, baita xiringatzen duena ere. Ondorioak oso azkar agertzen dira, ordu erdi batean (sudurretik sartuz gero), eta ordu eta bi orduko tartean (ahoko edo zain barneko bidez hartuz gero)



Garrantzitsua da kontuan izatea dosiaren arabera eraginak oso diferenteak izaten direla. Dosi txikietan sudurretik sartuta (25-75 mg), "keta"-k bihotzaren erritmoa azkartzen ditu, euforia eta alterazio perzeptiboak eragiten ditu, eta neurri txikiagoan, haluzinazioak.



Dosi ertainekin (50-125 mg) eraginak psikonautikoak izaten dira: ketaminak zure gorputzarekiko kontrola gutxitzen du, espazio-denboraren nozioa galduko duzu, eta bisioak eta burmuina eta gorputzaren arteko banaketaren sentazioak sortzen ditu.




Dosi handiagoetan (125 eta 300 mg artean sudurretik sartuta edo 60 mg-tik gora injektatuta), ondorio haluzinogenoak oso intentsuak izango dira, guztiz anesthesiatua gelditzeko punturaino. Bidaia mota hauek heriotzaren gertuko esperientziak edo k zuloa izenekin ezagutzen ditugu.




"Keta"-k atxikimendu psikikoa sortzeko oso gaitasun handia dauka, eta bere tolerantzia maila oso altua izan ohi da (gero eta kantitate handiagoak behar dira efektu bera lortzeko). Kasu honetan, anestesia lokal edo osoaren bidez ebakuntza jaso behar duen pertsonari arazo larriak sortu ahal dizkio.




Hauek izan ohi dira "keta"-ren eragin ez desiatuak: takikardiak, arnasa hartzeko ezintasuna eta dardarak, amnesia partzialak, zentzumenen distortsioa eta paranoiak, baita gorputzaren kontrolaren galera, erortzeak eta konorte-galtzeak ere.



Kontsumo iraunkorrek ikusmen eta memoria arazoak, garun-lesioak, kontzentrazio ahalmeneren murriztea, hizkuntza desordenak eta depresioak eragin diezazkizuke. Halaber, flashback-ak eta nerbio-tikak ere ager daitezke.




Bereziki kontraindikaturak dago bihotzeko edo gibleko gaitzak dituzten pertsonentzat, baita arazo psikologikoak, konbultsioak, presio arterial altua edota botika tiroideoekiko tratamenduak jarraitzen dituztenentzat ere.




Legez kanpoko edukitze eta salmentak arazo legalak erakartzen dituzte, bai penalak baita 3.000 eta 15.000 euroren arteko isun administratiboak ere.



Gogora ezazu kokaina eta anfetaminaren eraginekin eta dosiekin alderatuta hauek erabat desberdinak direla, eta dosi handi batek gura ez duzun bidaia txarra eragin diezazukeela. Beste substantzia batzuekin nahastuta arriskuak biderkatu egiten dira, eta alkoholarekin batera hartuta arnasketa geldialdiak sorraz ditzake.



Erabakia zure esku dago: arriskuak arretaz baloratzea beharrezkoa da, baita zure gogo-aldartera eta ingurunea kontuan hartzea ere.



ailaket!!

Ai laket!!-en kontsumo arduratsuaren eta erabilerak eragindako arriskuen ikuspuntutik autogestioaren askotariko sustantzia psikoaktiboekin bizitzen ikastearen aldeko apostua egiten dugu.

"Drogak kontsumitu, bai ala ez" pertsona helduek informatuta eta askatasunez hartu beharreko erabakia dela uste dugu. Ai laket!!-en asmoa ez da erabaki horren gainean eragitea, beste honakoa baizik: informazio zehatza, praktikoa eta sinesgarria eman, hartara kontsumitzekotan, ahalik eta zentzutasun elementu gehien biltzen dituen hausnarketaren emaitza izan dadin.



www.ailaket.com - ailaket@ailaket.com
Ai Laket!! Tel: 945 23 15 60
Jesusen Zerbiltzarien kalea 40. znb
01001 Vitoria-Gasteiz (Araba)

argitaratua:

ailaket!!

egilea:

MIKEL URMENETA © kukuxumusu